

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Ostirala, 2011ko apirilaren 15a. VIII. urtea. 2.211. zenbakia. www.tolosaldea.hitza.info

Gazteluko kultur etxearen auzia salatuko dute Elkartasun Egunean

Hamabi inputaturi eta bost langile kaleraturi azalduko diete elkartasuna, maiatzaren 7an; egun guztiko jaia antolatu dute, bertso bazkari eta guzti

Ezker abertzaleak duela 12 urte hasi zen auziaren inguruko irakurketa zorrotza egin du, orduko udal taldea gogor salatu duelarik 06



Gazteluko ezker abertzaleak agerraldia burutu zuen udaletxearen parean. M.UGARTEMENDIA

Itzel taldea, erromeriak alaitzeko gogoz

Irma Karrera tolosarrak, Ainitze Telletxea amezketarrak, Irati Garmendia alegiarrak eta Endika Esnaola anoetarrak osatzen dute orain bi urte sortu zen taldea 04



Itzel taldea 2009. urtean sortu zen. HITZA

Tls Bat-ek web berriarekin ospatuko du urteurrena

Tolosako Udaleko hainbat teknikarik aurkeztu dute 'www.tlsbat.net'; herritarren parte-hartzea azpimarratu dute, hauek informazioa zuzenean sartzeko aukera izango baitute 03

Guardia Zibilak Lander Etxeberria billabonatarra atxilotu du Donostian

Aitor eta Igor Esnaolarekin lotu dute Espainiako berri agentziek billabonatarren atxiloteta 06

Plaza Etxeberri
J A T E T X E A
Pedro Mari Otaño Plaza
943 69 19 36
Zizurkil

Aste santu honetan...
gera zaitzete gurekin
20€tako menu berezia prestatu dugu
postrea eta edaria*barne
*etxeko bodega

egin ezazu zure erreserba etxera datorateko!!!
jatetxea@plazaetxeberrri.com
www.plazaetxeberrri.com

EGIZU DEKLARAZIOA EUSKARAZ!

Erregimenak ez dira diruzkoak, erregimenak ez dira diruzkoak, erregimenak ez dira diruzkoak!

Internetaz egiteko, www.guzkoa.net web gurea iz behar duzu, eta bertan...

Mekantuzkoan, lehenbizi, hitzordua eskatu behar duzu telefonoz edo internet bidez. Eskerak agintzen...

Aldundik eskero badi duzu, **autokidetasun** proposamena buruztik, telefonoz edo internetaz...

Altoparean gasteria beteki edo beste beteki egiten baduzu...

EUSKARAZ NAHI DUZULA ADIERAZ DEZAKEZU

Antxoak dastatzeko aukera izango da bihar

Beti Alai jatetzeko sukaldariak 'Kilometro 0' ekimenaren baitan bertako produktuak maneatuko ditu

Itzea Urkizu

Bertako produktuak oinarri dituen Kilometro 0 ekimenak beste jardunaldi bat izango du bihar, Zerkausian.

Udaberriarekin batera bertako produktuak ere ugartzen hasten direla kontuan izanda, aukera zabalagoa izaten da sukaldari aritzeko. Hau probestuz, Zerkausian arituko den sukaldariak, urte garaiari dagokion platera prestatuko du herritarren artean parte hartzeko: marinatutako antxoak tomate konfitatuarekin, eta honi

lagunduz, ilar freskoak azalorre purearekin.

Oraingo honetan, Beti Alai jatetzeko sukaldari bat izango da Kilometro 0-ko protagonista: Inaxi Luluaga. Betiko moduan, Zerkausiko postuetan osagaiak erosiko ditu, eta jendaurrean maneatu ondoren, 11:30ak inguruan, herritarren artean banatuko du azken emaitza.

Tolosako Udaleko arduradunek, aurtengo Kilometro 0-ko saio guztietan Tolosako sukaldariak izan duten presentzia nabarmendu nahi izan dute. Solana 4 tabernakoak hasi ziren, eta Astelena jatetzekoak ere aritu ziren Zerkausian sukaldari lanetan. Hirugarrena, esan bezala, Beti Alai-koak izango dira. «Honek erakusten du, Tolosan gastronomiak duen kalitatea eta maila ez dela nolatanahikoa», diote antolatzaileek.



Astelena sukaldaria duela aste batzuk aritu zen Zerkausian. HITZA

Irudia



EAJ-KO HAUTAGAIEN AURKEZPENA

Datorren maiatzaren 22ko udal hauteskundeetarako hautagaien zerrenda aurkeztu zuen Tolosako Eusko Alderi Jeltzaleak. Ekitaldia Topic-en izan zen, eta hamazazpi hautagaiak euren helburuak azaldu zituzten jendaurrean. Besteak beste, da-

torren legealdirako EAJko taldeak herritarrengan «kofiantza eta ilusioa piztu» nahi du, eta horretarako «jomuga nagusia pertsonak» direla azaldu zuen Jokin Bildarratz alkategaiak, «proiektu edo eraikuntzen gainetik». ITZEA URKIZU

Irudia



KARAKOLAK PROTAGONISTA

Gero eta gertuago ditugun Aste Santuko oporretan, Tolosan gastronomia izango da nagusi bertako nahiz kanpokoentzat. Bereziki, karakolak izango dira ekintzen ardatz, Ostegun Santuan hauek prestatu eta jateko ohiturari eutsiz. Horre-

la, taberna eta jatetzeeke menu eta pintxo bereziak eskainiko dituzte opor egunetan, eta Trianguloan ere prestatuko dituzte jendaurrean. Era berean, haurrentzako jolas berezia antolatu dute hilaren 24 rako: barraskilo lasterketa. HITZA

→ Laburrak

Erramu iganderako ospakizunak

TOLOSA-IBARRA › Erramu bedeinkapenak izango dira igandean. Ibarren 10:30ean izango da. Tolosako Santa Klara 09:45ean, Santa Marian 12:00etan, Corpus Christin eta San Frantziskon 12:30ean, eta lurreko Andra Marian (Amarrotz) 11:00etan izango dira.

Atsedena aisialdi taldearen kanpaldia

TOLOSA › Atsedena aisialdi taldeak datorren udarako kanpaldia antolatu ditu. Lehen Hezkuntzako 2. mailatik 5. mailara bitarteko gaztetxoak uztailaren 31tik abuztuaren 7ra bitarte joango dira, eta 6. mailatik Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. mailara bitartekoak, berriz, uztailaren 31tik abuztuaren 11ra. Izena eman nahi dutenek 635746447 zenbakira deitu beharko dute datorren maiatzaren 6a baino lehen.

Musika Bandaren udaberriko kontzertua

TOLOSA › Bihar, apirilak 16, Tolosako Musika Bandak udaberriko kontzertua eskainiko du Luis Mari Gartzia Artetxeren zuzendaritzapean. Ekitaldia Berdura Plazan izango da, arratsaldeko 19:00etan. Lehenengo zatian Euskal Herriko kantu eta obrak interpretatuko dituzte, eta baita *George Gershwin*, *My Fair Lady* eta *Viva Navarra* obrak ere. Bigarren zatian Tolosako Dultzaineroen laguntza izango dute.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Tolosako Udaleko sailik berrienak 'www.tlsbat.net' aurkeztu du

Webgune berrian herritarrek eta eragile desberdinek informazioa sartzeko aukera izango dute

Asier Imaz Tolosa

Duela hilabete inguru urte bat bete zuen Tolosako Udaleko departamentu berrienak, eta orain bere ataria du Interneten: www.tlsbat.net. Berdintasuna, Partaidetza, Kultura, Gazteria eta Jaien sailak batzen ditu bere baitan, eta hauen arteko elkarlana bultzatzea du helburu.

Aipatutako arloak batzean, bakoitzak bere errealitatea zuela oharatu ziren arduradunak: «Hau da, batzuek on line lana egiteko baliabideak zituzten bitartean, besteek tresna hauek ez zituzten horren eskura. Hori dela eta, irudi bakar eta bateratu bat emateko asmoz, errealitate ezberdin hauek batzen dituen webgune berri bat» osatu dute. «Honela, tIs Bat departamentuko on line presentziari koherentzia ematearekin batera, zerbitzu eta ekitaldien berri era arin eta zehatzean ematea lortu nahi dugu», azaldu dute udal teknikariek.

www.tlsbat.net eratzeko erabili dituzten tresna guztiak sareetik eta doan hartuak izan dira, hau



Tolosako udal teknikariak 'www.tlsbat.net' webgunea aurkeztu dute. A. IMAZ

da, software librean erabiliz. Bestalde, bertan, departamentuko atal guztiak dute bere txokoa, eta aldi berean, bakoitzak bere autonomia du.

Parte-hartzea bultzatuz

Webgunearen sortzailea, bultzatzailea eta koordinatzailea tIs Bat departamentua bera baldin bada ere, sail honetatik haratago doan webgunea da atzo udal teknikariek aurkeztu zutena: «Wiki filosofia du ardatz, hau da, denen artean osatu eta eraiki daiteke. Webgune irekia izatea du xede eta herriko eragile nahiz elkarleen

parte-hartzeari esker osatuko da».

Honenbestez, elkarlanerako webgunea da, udaleko beste atalentzat eta Tolosako eragileen zatere sortua: agenda tresnak, wiki filosofiarekin egina, herriko jarduera soziokultural guzti-guztiak gune bateratu eta bakar batean biltzeko aukera eskaintzen duena.

Parte-hartzearen eredu garbiena Agenda atala da. Izan ere, eragile bakoitzak, bere aldetik programatutako ekintzen berri bertan eman ahal izango du, baita zabaldu ere. Horretarako, bi auke-

ra dituzte. Batetik, informazioa bere horretan, webgunearen koordinatzaileei bidaltzea; eta bestetik, zuzenean, agendan txertatzea. Azken aukera hau hartzen dutenek, zenbait kode eskatu beharko dituzte tIs Bat departamentuan, eta *google calendar*-en bidez egutegia osatu.

Parte-hartzea sustatzeko bide horretan, azpispailen informazioarekin batera, agenda eta eztabaidak ere aurki daitezke interneteko atari berrian. Honela, «pil-pilean dauden gaien inguruko iritzia eman ahal izango dute herritarrek», esan dute teknikariek.

↓ Kirol jarduera

BIHAR, APIRILAK 16

Usabal, goiko kantxa.

- 12:00etan, saskibaloia. Kadete mutilak: Take Tovar-Hernani.
- 16:00etan, saskibaloia. Junior neskak: Aralar Take-Astigarraga.

Usabal, beheko kantxa.

- 09:00etatik 12:30era, gimnasia erritmikoa.
- 16:30ean, areto futbola: Tolargi-Anoeta.

Usabal, futbol zelaia.

- 09:30ean, infantil txikiak: Tolosa CF-Lengokoak.
- 11:00etan, kadete ohorezko maila: Tolosa CF-Real Sociedad.
- 12:30ean, infantilak ohorezko maila: Tolosa CF-Elgoibar.
- 15:30ean, preferente maila: Tolosa CF-Amaikabat.
- 17:30ean, emakume seniorrak: Tolosa CF-Eibar.

Usabal igerilekua.

- 14:30ean, igeriketa klasikoa: Manolo Garcia txapelketa.

ETZI, APIRILAK 17

Usabal, goiko kantxa.

- 10:30ean, eskubaloia. Infantilak: Tolosa-Arrate.
- 12:00etan, saskibaloia. Seniorrak: Tolosa-Urnieta.

Usabal, beheko kantxa.

- 11:00etan, areto futbola. Emakumeak: Laskorain.

Usabal futbol zelaia.

- 09:00etan, alebinak, eskolotakoak.
- 12:00etan, alebinak: Tolosa-Hernani.
- Usabalgo tatamian.
- 09:00etan, judoa.

UZTURPE-TOLOSA KUP

BIGARRREN JARDUNALDIA

Bihar, apirilak 16.

- Lehen partida 15:30ean hasiko da, Minabo de Kiev eta The Patxis taldeen artekoa. Egutegiko azken partida 19:40an hasiko da, Amets Taberna eta Gaztelubiberen artekoa.

Etzi, apirilak 17.

- Lehen partida 15:30ean hasiko da, Elorri eta The Bajalis-en artekoa. Azkena 19:40an jokatuko da, Mantxester Ziti eta Chikens-en artekoa.

→ Laburrak

Saralegi eta Mujika aurrera segi nahian

AIZKORA ▶ Banakako Txapelketan, besteak beste, leitzar bat eta ibartar bat ariko dira lehen etzi, Orozkon, 12:30ean. Zortzi aizkolaritrik bik bakarrik jarraituko dute aurrera. Ruben Saralegi eta Jexuxmari Mujika bertan izango dira.

Osasun publikoaren alde sinatzeko aukera

GIZARTEA ▶ Osasun publikoaren aldeko plataformaren sinadura bilketak ez du etenik. Orain arte 9.000 inguru bildu dituztela azaldu dute, eta datozen egunetan ere izango da sinatzeko aukera. Bihar goizean Tolosan, Ibarren, Lizartzan eta Alegian jarriko dituzte mahaiak, eta asteartean Villabonan eta Andoainen, azoka eguna dela aprobetxatuz. Denak gonbidatu dituzte sinatzera.

Asteburuko zine programazioa

TOLOSA ▶ Leidor aretoko zine programazioaren baitan hainbat pelikula ikusteko aukera izango da bihartik astelehenera. Bihar, 22:30ean *Cisne Negro* ikusteko aukera egongo da. Etzi, 17:00etan, *Rango* botako dute. 19:30ean eta 22:00etan *Cisne Negro* ikusteko aukera egongo da berriro. Astelehenean ere pelikula bera ikusteko aukera egongo da Leidorren, 20:30ean.

Nafarroaren Egutera joateko autobusa

GIZARTEA ▶ Galtzaundik Nafarroaren Egutera joateko autobusa antolatuta du. Apirilaren 24an ospatuko da Baigorriin, eta eskualdeko herritarrek gonbidatu dituzte Galtzaundi Euskara Taldetik. Irteera Tolosako Tren Geltokitik izango da, 08:00etan. Baigorritik etxera 19:30ean aterako dira. Bazkideek 10 euro ordaindu beharko dituzte, eta ez direnek 12. Izena Galtzaundin eman behar da, edo 943 65 50 04 zenbakian.

Iragarki laburrak

GARBIKETA

■ Auxe Garbitasunak.

Alfonbrak, bulegoak, etxeak, eta antzekoak garbitzeko prest gaude. Interesadunek inongo konpromisorik gabe dei dezatela telefono zenbakira: 638 94 46 04 (Gurutze).

LANA

■ **Igeltseritza orokorra.** Espereintzia handiko igeltsero pro-

fesionalak dira: teilatu berriak, teilatu zaharrak konpondu, barruko obrak egin, pintura lanak, ... eskaintza bereziak egiten dituzte. Interesatuak deitu: 656 41 02 80 telefono zenbakira.

■ **Haur zaintzailea.** Neska eskualdun bat behar dugu ume bat zaintzeko. 05:00etatik 09:00ak bitarte, Alegian. Interesatuak deitu ondorengo tele-

fono zenbakira: 686 38 18 94-ra.

GALDUTAKOAK

■ **Mastin txakurkumea.** Bi hilabeteko mastin arrazako txakurkumea galdu zen ostiralean, hilaren 8an. Abaltzisketa, Amezketeta, Alegia, Beasain, Zumarragako bidean. Aurkitzen duenak deitu mesedez: 637 47 48 10 telefonora.

Biarritzeko Atabal gelan
37, Moura Kalea 64000 BIARRITZE

GENTLEMAN

Lehen partean: DUBPHONIC

Apilaren 20oan
Asteleko 21:00etan

l'atabal

Solne de Musiques Actuelles de Biarritz

Aurpegi berriak erromeriarentzat



Itzel taldeko kideak Anoetako Gaztetxean; bertako lokalean egiten dituzte entseguak. I. GARCIA

Irma Karrerak, Ainitze Telletxeak, Irati Garmendiak eta Endika Esnaolak osatzen dute Itzel taldea

Imanol Garcia

Ez dira oraindik bi urte bete Itzel erromeria taldeak lehen kontzertua eman zuela. 2009ko Ugarteko festetan izan zen. 21 eta 24 urte bitarteko laukote batek osatzen du: Irma Karrera tolosarra, Ainitze Telletxea amezketarra, Irati Garmendia alegiarra eta Endika Esnaola anoetarra.

Amezketan piztu zen taldea osatzeko txinparta. Karrera bertako musika eskolako trikitixa irakaslea da. Telletxea gitarrak ikasten ari zen bertan: «Guraso batzuk proposatu ziguten Irma eta bioi saio bat prestatzeko ikasturte amaieran egiten den ema-

naldirako». Proposamena onartu eta emanaldian abestu zuten. «Jendeak esan zigun oso ondo joan zela eta hortik atera zen talde bat sortzeko ideia», gogora ekartzen dute.

Beste bi taldekideak lortzeko ez zuten zailtasunik izan. Garmendia Telletxearen koadrilakoa da eta Esnaola bere lehengusu txikia. «Beraiekin gogoratu ginen, deitu eta baietz erantzun ziguten biek, probatuko zutela», dio Telletxeak.

Amezketan gitarrak ikasten ari diren zenbait emakumek Ugarteko festetan jo behar zutela esan zuten, eta horrela etorri zen lehenengo kontzertua, elkartu eta hilabetera. «Kontzertu horrek dena bizkortu zuen», diote. «Elkartu eta entseguak bete-betean egiten hasi ginen».

Emakume horiek izan ziren taldearen izena proposatu zutenak ere: «Ugarteko festetako egitarauan taldearen izena jarri behar

ITZEL TALDEA

- **Irma Karrera.** Trikitixa eta ahotza.
- **Ainitze Telletxea.** Gitarra, panderoa eta ahotza.
- **Irati Garmendia.** Baxua.
- **Endika Esnaola.** Bateria.
- **Harremanetarako.** 690 3815 35, 685 71 27 82 edo itzeltaldea@live.com.

zen eta beraiek proposatu ziguten. Berez, Mexikon itzel zerbait positiboa esan nahi du, eta hortik dator izena. Euskaraz ere ondo gelditzen da hitza eta horrela hartu genuen izena».

Entseguak, Anoetan

Erromeri kutsuko musika jotzen dute. Ohiko fandangoa eta arinarinaz gain, entzulego gazteak ere aintzat hartzen dituzte, eta Etxakit eta antzeko taldeen beretsioak ere egiten dituzte. Beraien abestirik ez dute sortu, baina bidean daudela diote.

Anoetako Gaztetxean egiten dituzte entseguak. Taldeak esker ona agertzen dio gaztetxeari: «Oso garestiak dira musika erki-poak eta guk gaztetxeari alokatzen diegu. Guri mesedea egiten digute». Aimar Alonso eta Xabat Ugartemendia anoetarrak aritzen dira soinu teknikari gisa, eta beraien lana narbarmentzen dute: «Behin soinu teknikari gabe aritu ginen eta ez zen ondo atera».

Hamabost bat kontzertu eman zituzten iaz. Hemen inguruan izan ziren gehienak. Aurten gehiago zabaltzeko asmoa dute, Gipuzkoaren hegoaldera eta Bizkaia, esaterako. Jaioterrietan eman dituzte kontzertuak; Tolosa falta zaie. Emanaldietan entzulegoari dantza egitea asko kostatzen zaiola diote: «Justu kontzertua bukatzen ari direla, animatzen dira dantza egitera». Hurrengo emanaldia bihar bertan dute, Oiartzungo Gaztetxean, bosgarren urteurrenko festan.

↓ Asteburuko pilota partidak

APIRILAK 15, GAUR

- **Zizurkil.** 18:30ean, Intxaur frontoian, Udaberri Txapelketa binaka: Ziotza 2-Intxurre 1 (infantilak); Ziotza 2-Intxurre 1 (2. urteko alebinak); Ziotza-Aurrera Saiaz (kadeteak 1. maila).
- **Altzo.** 19:00etan, udal pilotalekuan, gomazko paleta txapelketa: Intxurre 2-Zubietza 1 (neska jubenilak); Intxurre 3-Ikasberri (neska jubenilak).
- **Ikaztegieta.** 19:00etan, udal pilotalekuan, Udaberri Txapelketa lau t'erdian, Aurrera Saiaz-Intxurre (nagusiak); Aurrera Saiaz-Behar Zana (nagusiak); Aurrera Saiaz-Intxurre (nagusiak); Intxurre-Tartaloetxe (nagusiak).
- **Alegia.** 19:00etan, udal pilotalekuan, Udaberri Txapelketa lau t'erdian, Intxurre-Euskal Jolas (kadeteak 2. maila); Intxurre-Eibar (kadeteak 2. maila); Intxurre-Arrasate (jubenilak 1. maila); Intxurre-Aurrera Saiaz (jubenilak 1. maila).
- **Bidegoian.** 19:30ean, Ernio pilotalekuan, Udaberri Txapelketa lau t'erdian: Aurrera Saiaz-Ziotza (kadeteak 1. maila); Aurrera Saiaz-Aurrera Saiaz (nagusiak).
- **Altzo.** 20:30ean, udal pilotalekuan, Udaberri Txapelketa binaka: Intxurre 3-Intxurre 5 (infantilak).

APIRILAK 16, BIHAR

- **Tolosa.** 09:00ean, Beotibar pilotalekuan, Udaberri Txapelketa lau t'erdian: Aurrera Saiaz-Bergara (jubenilak 1. maila); Aurrera Saiaz-Aurrera Saiaz (nagusiak); Aurrera Saiaz-Aurrera Saiaz (nagusiak).
- **Villabona.** 12:00etan, plazan, Errebote Txapelketa: Behar Zana-Kapito Harri.
- **Bidegoian.** 15:30ean, Ernio pilotalekuan, Udaberri Txapelketa binaka: Aurrera Saiaz-txapagain (2. urteko alebinak); Aurrera Saiaz-Txapagain 2 (infantilak). Udaberri Txapelketa, lau t'erdian: Aurrera Saiaz-Usturbil (kadeteak 1. maila); Aurrera Saiaz-Zestoa (kadeteak 1. maila); Aurrera Saiaz-Bergara (jubenilak 1. maila).
- **Altzo.** 17:00etan, udal pilotalekuan, talentudunen txapelketa, 2. urteko alebinak: Intxurre-Illunpe; Intxurre-Intxurre; Ziotza-Txapagain. 18:30ean, Udaberri Txapelketan binaka, Intxurre 2-Aniztasuna 2 (2. mailako alebinak).

APIRILAK 17, ETZI

- **Bidegoian.** 12:00etan, Ernio pilotalekuan, Udaberri Txapelketa lau t'erdian: Aurrera Saiaz-Aurrera Saiaz (nagusien maila).

Larrun
Egunera idekio Azaroaren 13-a arte
Animazioak urririk gaiturrean

Deskubritu euskal indar jokoak astelehen, asteazken eta ostiral goziz Apirilaren 17-tik Maiatzaren 6-ra.

2011

Treinek 35 minutu 9h30tik 11h30ra eta 14tik 16h30ra.

www.rhune.com

Lakua itsaso nahi dugu

HERRI URRATS
SEMPERE 2011

AUTOBUS OLATUAK ZURE ESKU!

MAIATZAK 8 SEMPERE

Euskal joko eta jolasen DBH1 eta DBH2ko azken jaialdia egingo dute gaur

I. Garcia Anoeta

Euskal joko eta jolasen Gipuzkoako azken jaialdia egingo dute gaur Anoetan, herriko plazan. 09:45ak inguruan hasiko da eta 13:00etan bukatuko da. DBH1 eta DBH2ko11 ikastetxe hartuko dute parte, guztira 380 neska eta mutilak.

Kutzak antolatu eta Xibak zuzentzen duen egitasmo honetan 25 bat jaialdi egin dituzte, gaurko azkenera iritsi aurretik. Guztira 3.000 neska mutil inguruk hartu dute parte jaialdi horietan. Jaialdi horien helburua euskal jolasak indartzeaz gain, ikasleen arteko harremanak landu eta garatzea litzateke, betiere jolasak nahiz lehia tresna motibatzaile gisa erabiltuta eta ez helburu moduan.

Mendibil taldeak BTT irteera antolatu du Uzturre mendira

I. Garcia Leitza

Leitzako Mendibil mendi taldeak BTT irteera antolatu du biharko. Leitzatik Tolosako Uzturre mendira joango dira eta berriro Leitzara itzuliko dira. 08:30ean aterako dira txirindulariak Leitzako geltokitik. Mendi taldetik azaldu dutenez, kaskoa eta gorpilaren ordezko barneko hodia eraman beharrekoak dira.



Kirol gune berria, besteak beste, futboleant eta saskibaloiant jolasteko prestatuta dago. I. GARCIA

Kirol guneak erabilera zabala duela dio alkateak

Zabortegia berdindu ondoren, futboleant seta saskibaloiant jolasteko gunea egin dute bertan

Imanol Garcia Orendain

Kirol gune berria «oso eroso» geratu dela azaldu du Tomas Plazaola Orendaingo alkateak. «Herriarrek zein kanpotarrek erabiltzen dute», gaineratu du alkateak. Frontoi ondoan dago gunea. Zabortegia berdindu ondoren, futboleant eta saskibaloiant jolasteko gunea egin dute.

Obrak 104.000 euroko kostua izan zuten eta hiru erakundek jarri zuten dirua: Espainiako Gobernua, Zapatero Planaren bitartez, Orendaingo Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak.

Markel Olanoren bisita

Aurreko astean Markel Olano diputatu nagusiaren bisita jaso zuten Orendaingo Udalean, azken



Etxebizitzaren eta balio anitzeko eraikinaren obrak, atzo. I. GARCIA

lau urteetako errepasoa egiteko. Besteak beste, kirol gune berria bisitatu zuten, eta «harriritu geladitu ziren zonalde horrek duen itxura berriarekin», Plazaolak esan duenez.

Mahai ganean izan zuten beste gaia balio anitzeko eraikin berria izan zen. Eskolapioen eraikinak bota dituzte eta dagoeneko balio anitzeko eraikinaren estruktura altxatu dute. Ondoan, hamabi etxebizitza eta bi lokal eraikiko dituzte.

Balio anitzeko eraikinak Landagipuzkoa 32 egitasmoaren diru laguntza jaso du. Aurrekontua 721.000 eurokoa da; horietatik 600.000 jarri ditu Foru Aldundiak eta falta dena udalak. Bertan egongo dira haurreskola, adinekoentzako bilgunea eta etxebizitzak, liburutegia, KZgunea eta bilera gelak.

Eraikina urte honen bukaerara amaitu behar da. Etxebizitzak amaitzeko epea 2012ko azaroan bukatzen da.

Joxe Mari Oterminen 'Amezketak' aurkeztuko dute

Juanlopezenea etxeko areto nagusian izango da ekitaldia, gaur 20:00etan; 600 ale inprimatuko dira

I. Garcia Amezketak

Joxe Mari Otermin amezketarrik azken aldi honetan landu duen *Amezketak etxek etxe* liburua aurkeztuko da gaur, 20:00etan, Juanlopezenea etxeko areto nagusian.

Liburuak 620 orrialde ditu eta 220 fitxa inguru. Etxe bakoitzari buruzko zertzeladez gain, argazki sorta oparoa erakusten du liburua, 500 inguru baitaude. Argazki hauetatik batzuk zaharrak dira eta beste asko azken boladan eginak.

Liburuak gaur egun zutik dauden etxeei buruzko informazioa ematen du batik bat, nola zaharrez hala berriez.

Etxek etxe banatuko da

Amezketako Udalak, Kutzak eta Ogiberrik lagundurik plazaratuko da *Amezketak etxek etxe* liburua. Oraingo honetan 600 ale inprimatu dira. Etxek etxe banatuko da liburua.

Gaurko aurkezpenean Jexux Iñurrita alkateak, Juanlopezenea etxean jaiotako Pello Aierbe Etxeberria katedradunak eta Joxe Mari Otermin egileak parte hartuko dute.

Liburuari buruzko argibideak eman ondoren, ahoa gozatzeko eta zintzurra leuntzeko aukera izango da. Amezketar guztiei luzatu diete gonbitea aurkezpenera joateko.



HITZAK harpidedunentzat **sarrera pareta** du

• Izaskun Iraola (Bidania)



LAGUN ARO GBC
Granada
saskibaloia partida


Apirilak 24 • Igandea
12:30ean • Donostiako Ilunben

harpidedunentzat **TXOKOAK HITZA**

saridunak

HITZAK harpidedunentzat **sarrera pareta** du

• Mari Jose Amonariz (Tolosa)



Bertsotan Korrika

Apirilak 16 • Larunbata • 20:00etan
Donostiako Antzoki Zaharrean

sarrerak eskuratzeko Tolosako HITZAKo bulegotik pasa



sarrerak

HITZAK harpidedunentzat **sarrera pareta** du

• Xabier Estarbe (Tolosa)



Udaberri Dantza Taldearen
Erroneriaren baitan

Afari txartela

Apirilak 16 • Larunbata
21:00etan • Tolosako Zerkausian

Guardia Zibilak Lander Etxeberria atxilotu du

Igor eta Aitor Esnaola anaiekin lotu dute billabonatarren atxiloteta Espainiako berri agentziek

Erredakzioa Villabona

Guardia Zibilak Lander Etxeberria atxilotu zuen atzo arratsaldean Donostian, ustez Igor eta Aitor Esnaolaren aurkako operazioarekin lotuta. Etxeberria Villabonara eraman zuten atxilotu eta gero, eta bertan herritar ugari bildu ziren atxilotuari elkartasuna

agertzeko.

Berri agentzien arabera, Aitor Esnaola Madrildik Legorretara eraman zuten atzo, eta sendiaren baserria miatzen aritu ziren berriro, eguerdira artean. Polizia iturriek esan zuten, zulo gehiago aurkitu zituzten.

Aitor eta Igor Esnaola anaiei abokatuak Habeas Corpusa eskatu du, atxilotuak berehala epailearen aurrera pasatzeko. Entzutegi Nazionalak ukatu egin du eskera hori. Inkomunikazio aldian atxilotuak torturatuak izan daitezke ekiditeko neurriak ere eskatu ditu defentsak, eta hau ere atzera bota dute.

Gutuna

Antolatzaileen eskerrak

Pasa zen apirilaren 2an musika jaialdi potoloa izan genuen Leitzaldea, AtekaRock izeneko, egun eta gau osoz herriko kaleak jendez bete zituen.

AtekaRock Herri Gunearen proiektua bultzatzeko asmoz sortu zen jaialdi hau antolatzearen ideia, eta auzolana izan da bere funtzionamendua oinarria hasiera hasieratik.

Beharrezko izan da beraz herritar askoren inplikazioa eta lanerako borondatea festa egun hau aurrera ateratzeko orduan, bai aurreprestaketan eta baita egunean bertako txandak eta muntaketa lanak egiteko garaian ere.

AtekaRocken antolatzaileok eskerrak eman nahi dizkiegu beraz leitzarrei hasieratik erakutsi duten prestutasun eta bo-

rondate onagatik, denon lanaren bidez lortu baitugu AtekaRock jaialdia aurrera ateratzeko!

Eskerrak baita ere proiektuari euren bultzadaxoa eman dien enpresa nahiz komertzio laguntzaileei: Gaztañaga, Torrea, Peritz, Zirkulo, Txoko eta Adur taberna eta bereziki Gorritz Eraikuntza eta Eskabazioak eta Goiko Lorezaintza enpresak, hasieratik beraien babesa eta laguntza ezinbestekoa izan delako.

Gure partetik, balorazio oso positiboa egiten dugu AtekaRocken lehen jaialdi honen inguruan, ikusiko dugu aurrerago errepikatuko aukerarik baden edo ez!

Eskerrik asko denoi eta hurren arte!!

■ **AtekaRocken antolatzaileak.**



Gazteluko ezker abertzaleak prentsaurreko batean aurkeztu zuen Elkartasun eguna. MAIER UGARTEMENDIA

Gazteluko kultur etxearen kasuan inputatutakoei elkartasuna adieraziko diete

Gaur egun 12 lagunek inputatuta jarraitzen dute; bost langile kaleratu ere gogoratuko dituzte

Maier Ugartemendia Gaztelu

Gazteluko ezker abertzaleak Elkartasun eguna antolatu du, maiatzaren 7rako. Gazteluko kultur etxean izan ziren arazoan ondorioz, oraindik inputatuta dauden 12 lagunei eta bost langile kaleratuei elkartasuna adieraztea dute helburu.

Kultur etxearekin izandako gorabeherak orain dela 12 urte hasi ziren. «Kultur alorrean zeuden gabeziei aurre egiteko kultur gune bat sortzea» izan zen kultur etxea sortzearen helburua. «Herri txikien hileria kasua, Gaztelu muturreraino iritsi baino lehen» herritarrei zerbitzu gehiago eskuragarri ipini nahi izan zitzaizkien: umeentzako liburutegia, ikastaro anitzak, baserriarren ekoizpen gune bat, eta hainbat lanpostu sortzea. Horrez gain, kultur etxeak aterpetze, jateke eta taberna funtzioak ere betetzen zituen. Autofinantzaketaren bidez, «urteko 35 milioi pezeta inguruko fakturazioa zuten» ezker abertzalearen hitzetan. Eta, gainera, Eusko Jaurlaritzarekin adostuta, urtean, «17.000 haurrei euskara eta natura maitatzeko bidea» ematen zieten. Euskal Herrian horrelako proiektu bat martxan jarzen zen lehen aldia zelarik.

Kultur etxearen itxiera

1999ko abuztuan, ezker abertzalearen esanetan «bizirik eta osasuntsu» zegoen kultur etxea itxi zuten. Beraiek, urteak pasa ondoren, arrazoi nagusi bat ikusten dute: «erabaki politiko baten ba-

rruan» jokatu izana. Ezker abertzalearen ustez, «EAJ-k ezin zuten jasan Gaztelu, zein eskualdean, ezker abertzalea udalgintza mailan burutzen ari zen lana». Are gehiago, beraien hitzetan «EAJ-k izugarriko interes politiko nahiz ekonomikoa azaldu zuen, eta dinamika hori aurrera eramateko, denak balio izan zion».

Kultur etxea martxan zegoela EAJ-k «toxikazio kanpaina izugarria jarri zuen martxan, komunikabide guztietan, gezur eta akusazio faltsuetan oinarrituz». Garai horretan, «Gaztelun EAJ, Gazteluko Herritarrak izenarekin alkatetzara iritsi zen. Juan Aranzabe, Rosa Gabirondo, Jose Mari Goikoetxea eta Miguel Aurrutia zinegotzi zirela». 4 urte beranduago, 1999ko irailaren 30ean kultur etxeko 5 langilek «kaleratzeko eskutitza jaso zuten». Langileek kaleratzearen aurkako errekurtsioa epaitegietan jarri zuten, eta ebazpena iritsi bitartean, protestaldiak egiten hasi ziren. Egoerari irtenbidea eman nahian, langileek hainbat proposamen egin zituzten udaletxean: «kultur etxea enkantean ateratzea, edo garai hartan zituen langile kopurua murriztuz, gestioa udalaren mende hartzea», besteak beste.

Langileek 5 hilabete luzez karabana batean bizi izan ziren, beraien lan eskubideak defendatzeko. Eskualde mailako mobilizazioek ere, «erantzun zabalak» eduki zuten ezker abertzalearen ustez; eta hainbat eragileren babesarekin elkarretaratzeak, manifestazioak, eta abar antolatu ziren. Azkenean, Donostiako epaitegiak «5 langilei arrazoi eman eta udalak langileak kalera bidaltzea bidegabekeria izan zela onartu zuen». Are gehiago, «epaiak langileek erabateko defentsa eza jasan zutela azpimarratzen du, udalak aurkeztutako txostenetan langileek galarazita eduki zutela-

ko beraien argibideak ematea». Epaia udaletxeari bi aukera eman zizkion, «langileak kondizio bereberkin berriz hartzea» edo «kalte galeren ordainketa burutzera». Langileek «beraien presuntasuna adierazi zien udalari, akordio batera ailegatzeko. Baina, udaletxearen erantzuna komunikabideetara gezurrak bidaliz eta toxikazio kanpaina areagotuz, langileei kalte ordainak ordaintzea» izan zela dio ezker abertzaleak. Hauen esanetan, garai hartako alkatearen hitzak «esanguratsuak» izan ziren. Honela gogoratu ditu ezker abertzaleak: «Juan Aranzabe langile horiek kultur etxean lanean ikusi baino, ijitoak nahiago zituela ikusi esan zuten, hitzez hitz».

Langileekiko elkartasuna areagotzean, presio politzial eta judiziala «areagotu» egin zen. 25 lagun auziperatuak izan ziren, eta elkartasuna adierazteagatik gaur egun 12 lagunek inputatuta jarraitzen dute. Hauek «kartzela zigorrak eta isun ekonomikoak ordaintzera derrigor turrik daukete». Kultur etxeak burutzen zituen zerbitzuak eraso «bortitz» honen ondorioz, «zapalduak» izan dira. Eta, ezker abertzalearen ustez, «kultur etxea ixtearen errudunak», 12 urte daramatzate «inongo esplikaziorik eman gabe».

Elkartasun eguna

Guzti hau dela eta, ezker abertzaleak Elkartasun eguna antolatu du, maiatzaren 7rako. Egunguztiko festa izango da. 12:30ean sagardo dastaketa egingo dute. 13:30ean elkarretaratze bat egingo dute herriko plazan. Eta, azkenik, 14:00etan bertso bazkaria egingo dute kultur etxean, Maialen Lujanbio eta Iker Zubeldiarenkin. Txartelak maiatzaren 2rako erosi behar dira, Raku eta Zubiaurre tabernetan.

IRURAKO FRONTOIAN PILOTA JAIALDIA

APIRILAK 15 OSTIRALA 19:15ean

LAU TERDIKO PARTIDA

BENGOETXEA VII vs CHAFEE

ESKUZ BINAKAKO PARTIDA

CAPELLAN LASA III vs KOKA EULATE

GAZTA DASTAKETA: MUSU-TRUK

PELOTAMANO

SARRERA DOHAINIK

Antolatzaileak: **IRURAKO UDALA**

garfepelota.com

Gaur estreinatuko du Oinkarik 'Ari du' ikuskizuna

Guztira 75 dantzari ariko dira taula gainean 22:30etik aurrera, Tolosako Leidor aretoan

Rebeka Calvo Villabona

Azken hilabeteak lan eta lan eman ondoren gaur estreinatuko du Villabonako Oinkari dantza taldeak bere ikuskizun berria: *Ari du*. Emanaldia Tolosako Leidor antzokian izango da 22:30etik aurrera.

Dantza taldeko arduradunek azaldu dutenez, guztira 75 dantzari ariko dira taula gainean, eta dantzaz gain, Loatzo musika eskolako musikariak izango dira Leidorren. Zehazki musika esko-



Edu Murumendairazek egin ditu koreografiak. HITZA

lako bederatzik musikari eta zuzendaria izango dira taula gainean, eta hauek osatutako doinuen gainean ariko dira dantzan Oinkariko dantzariak.

Loatzokoekin batera Juan Kruz Igerabide olerkaria izango da taula gainean. Idazleak zenbait olerki errezeitatuko ditu ikus-

kizunean zehar. Aipatu behar da azken emanaldietan bezala, Aukeran konpainiako Edu Murumendiarazek osatu dituela dantzen koreografiak.

Euriarekin eta urarekin lotuta emanaldi berria hunkigarria izango dela aurreratu dute Oinkarikoek.

Zizurkilgo plan orokorrak 625 etxebizitza egitea aurreikusten du

Foru Aldundiak onartutako hirigintza agiriak 570 etxebizitza datozen zortzi urteetan egitea ahalbidetzen du

R. C. Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundiak Zizurkilgo Hiri Antolaketako Plan Orokorra onartu berri du. Plan orokorrarekin 625 etxebizitza berri eraiki ahal izango dira, eta horietatik 570 unitate planaren lehenengo zortzi urteetan garatu ahal izango dira. Jarduera garrantzitsuenak Fraisoro Errota, Ihartza eta San Millan guneeetan garatuko dira. Lehenengoan 190 etxebizitza aurreikusten dira, bigarrenean 86 eta hirugarrenean 69. Errota eremuan ere 156 etxebizi-

tza aurreikusten dira, egun Amondarain tailerrak hartzen dituen lursailak etxebizitzetarako kalifikatu eta gero. Orobat, hirigintza agiri berriak agintzen du etxebizitza berrien artetik 263k babes ofizialekoak edo salneurri tasatukoak izan beharko dutela.

Jarduera ekonomiko eta industrialetarako lurzoruarri dagokionez, sendotu egin dituzte jada ezarritako dauden industria jarduera gehienak, eta beste 23 hektarea kalifikatu dituzte. Era berean, Amondarain tailerra AUI 26 Lu-berri sektore berrira joango da.

Plan orokorrak egungo gizarte ekipamendua ere jasotzen ditu, eta musika eta dantza eskolarako auditorio bat eta Fraisoro Errota frontoia eraikitzea aurreikusten du. San Millan eskolak handituko dira eta Atxulondoko kultura etxea birmoldatu.

Pilota, mendi irteera, sokatira eta krosa, Kirol Astea bukatzeko

Igandean bukatuko dira ekitaldiak; gaur pilota partidak izango dira 19:15etik aurrera pilotalekuan

R. C. Irura

Igandean bukatuko dira kirolari eskainitako egunak Iruran.

Gaur 19:15ean lau t'erdiko pilota partidak izango dira pilotalekuan; Chaffee Bengoetxea VII.a

izango du aurkari. Eskuz binako partidaren protagonistak berri Capellan-Eulate eta Koka-Lasa III.a izango dira.

Bihar mendi irteera izango da. 10:00etan irteera izango da plazatik Loatzo-Uzturre ibilaldia egiteko eta ondoren, Zarretxera joango dira bazkaltzera. Bazkaltzera joan nahi dutenek gaur dute txartela erosteko azken aukera.

Helduek 15 euro ordaindu beharko dituzte, eta haurrek 6. Arratsaldean, 17:30ean, sokatira ikuskizuna izango da lehenengo,

eta ondoren, haurrentzat herri kirolak izango dira Xibaren esku-tik.

Kirol Astea bailarako II. Kros Herrikoiarekin agurtuko dute. 10:30ean aurrebenjaminak (312 m.), benjaminak (625 m.), alebinak (1.250 m.) eta infantilak (2.500 m.) aterako dira, eta 11:30ean kadeteen (5.000 m.) eta helduen (5.000 m.) txanda izango da. Izena irteeran bertan eman ahal da, edo kirolakirura@gmail.com helbidera idatziz, bertan izen-abizenak, jaiotze data eta herria zehaztuz.

Merkatu Txikia astelehenetik aurrera

Udaletxeko arkupean jarriko dute 17:30etik 19:30era; liburuak erosi ahal izango dira

R. C. Anoeta

Anoetako Udalak hilaren 23ko Liburuaren Nazioarteko Egunaren harira liburuen Merkatu Txikia

antolatuko datorren asterako. Astelehenean, asteartean eta asteazkenean egongo da merkatua udaletxeko arkupean 17:30etik 19:30era. Liburuak prezio sinbolikoa izango dute; merkeenak 0,50 eurorengatik erosi ahal izango dira, eta garestienak, aldiz, 3 euroren truke. Era berean, egunero liburu ezberdinak izango direla argitu dute udal ordezkariek. Udalak herritar guztiak gonbidatzen ditu azokan parte hartzera.

Hilberriak

ESKELAK

943-65 56 95

tolosaldean@hitza.info

MIGUEL YOLDI OLLO

(Isidro gure lankidearen aita)

*Mundua ez da beti jai
inoiz tristea ere bai
baina badira mila motibo
kantatzeko alai.
Bestela datozen penai
ez diet surik bota nahi
niri hiltzen naizen gauetan behintzat
egizue lo lasai.*

Urrats euskaltegioko lankide eta ikasleak



DONOSTIA,
2011ko apirilak 15



MIGUEL YOLDI OLLO

jauna

Apirilaren 13an hil zen, 80 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

- Goian bego -

Bere emaztea: M^ñ Jesus Iturbide; seme-alabak: Isidro eta Eva Lopez, Fernando, Gisela; anai-arrebak: Alejandro (†), Babil (†) eta Dora, Sa-lus (†) eta M^ñ Luisa, Isidro (†) eta Rosalia (†), Teodoro (†) eta Puri, M^ñ Luisa eta Antonio, Feli eta Daniel, Gregorio eta Carmen; ezkon anai-arrebak: Sagrario eta Alejandro; ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.

Haren animaren alde otoi bat eskatzen dizuzte eta areen etor zaitzela BIHAR LARUNBATA, arratsaldeko, ZAZPIETAN Antiguako SAN SEBASTIAN MARTIRIA parroki elizan, egungo den MEZARA. Aldez aurretik, mila esker.

DONOSTIA, 2011ko apirilak 15

HILETAREN BALIOA
Txina Inperiala

Funeraria Vascongada ere pertsonen dugu pertsona bakartzak bere neumiko fileta izan behar duela. Horregatik, alor horretan lider garenez, aukera ekonomiko guztietara egokitzen diren Hileta Zerbitzu Packak eskaintzen ditugu gure kalitatearen bermearekin.

Bereskurazazina da galdu duzuna.
baina laguntza eskainiko dizugu dena erazagoa izan dadin.

FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK

902 402 900

www.funerariavascongada.com



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: www.tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@iragarri.net.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leitzaldea: 687 410 118. leitzaldea@hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.M.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Eskurari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:
Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezketak, Anoeta, Areso, Belauntza, Berastegi, Elduain, Herrialdea, Irura, Leitza, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Agurrak



Urte askoan!
Unai Urkizar Landa (Ibarra), Bihar, larunbata, 4 urte beteko ditu. Zorionak eta muxu goxoak etxeko guztien partetik.



Urte askoan!
Igaratz eta Ugaitz Azkarai (Bidania), 3 eta 6 urte betetzen dituzte, zorionak etxekoan partetik! Muxu!

AGURRAK
943-65 56 95
tolosaldean@hitza.info

agurrak

Agenda

DEIALDIAK

- **Armezketak.** Korrika Txikia egingo dute gaur, 15:30ean. Ondoren merienda izango da.
- **Berastegi.** Korrika Txikia egingo dute gaur, 15:30ean. Ondoren merienda izango da.
- **Anoeta.** DBHI eta 2ko euskal joko eta jolasen Gipuzkoako azken jaialdia gaur, 09:45etik 13:00etara herriko plazan.
- **Leitza.** Mendibil mendi taldeak BTT irteera antolatu du biharko. Leitza-Uzturre-Leitza ibilbidea egingo dute. Leitzako geltokitik 08:30ean irteno dira. Kaskoa eta gurpilaren barneko ordezko hodia eramateko eskatu dute antolatzaileek.
- **Tolosa.** Bihar *Kilometro 0* ekimeneko beste jardunaldi bat izango da Zerkausion. Oraingoan Beti Alai jaietxeko sukaldaria izango da merkaturan garaiko produktuak erosi, eta herritarren aurrean prestatzeko.
- **Tolosa.** Alpino Uzturre elkar-teak mendi irteera antolatu du etzirako. Txangoa Urkillagan (Ataun) hasi eta Larraitzen bukatuko da. Zazpi orduko ibilbidea da eta autobusa San Frantziskotik aterako da 07:30ean. Bazkideek 5 euro ordaindu behar dituzte, eta ez bazkideek 6 euro. Izena emateko idatzi alpinouzturre@hotmail.com helbidera edo deitu 943 65 27 89 telefono zenbakira.
- **Tolosa.** Arantzazu santutegira joateko irteera izango da bihar. Autobusak Santa Klara komenturen parean egingo du geldialdia 07:55ean.
- **Ugarte.** Petritegi sagardotegira irteera antolatu dute Ugarteko elkartetik, hilaren 16rako. Autobusa 12:30ean aterako da plazatik. Joan nahi duenak txartela Ugarteko Goikoetxea-enean erosi behar du, eta lehenbai-

lehen egitea aholkatzen dute antolatzaileek.

- **Berrobi.** Maitzaren 7ko bertso bazkarirako izena emateko azken eguna etzi izango da. Herriko dendetan banatu diren zerrandetan eman daiteke izena.
- **Aiztondo.** Aiztondoko IV. Gutun Lehiaketarako lanak bidaltzeko azken eguna maiatzaren 5a izango da. Lanak aipatu eguneko 14:00ak baino lehen aurkeztu behar dira. Gutunek gehienez bi orrialde izan behar dituzte eta Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateko Bulegora bidali behar dira (Muñoa kalea, 36-behea. 20.159 Zizurkil).

KIROLA

- **Irura.** Lau t'erdiko eta eskuz binakako pilota partidak gaur, 19:15etik aurrera pilotalekuan.
- **Irura.** Gaur 17:30ean sokatira ikuskizuna eta haurren herri kirolak pilotalekuan.
- **Leitza.** Josetxo Urrutiak bere pisuaren bikoitza den, hau da, 150 kilo inguru dituen, harri kubikoa altxatuko du 5 minutuko txandan bihar, 18:00etan.
- **Irura.** Loatzo-Uzturre mendi irteera bihar, 10:00etan aterako dira herriko plazatik.
- **Tolosa.** Bihar Usabalgo beheko kantxan 09:00etatik aurrera gimnastika erritmikoa; goiko kantxan saskibaloiko partidak; futbol zelaian infantilen eta kadeteen partidak; eta tatamisan judo saioa. Arratsaldean ere, 16:00etatik aurrera goiko kantxan saskibaloiko partidak izango dira; beheko kantxan areto futbola; futbol zelaian preferente mailako eta emakume seniorren partidak; eta tatamisan judo saioa. Igerilekuan 14:30ean igeriketara klasikoko Manolo Garcia txapelketa izango da.
- **Tolosa.** Uzturpen Tolosa Kup

txapelketa bigarren jardunaldiko partidak 15:30etik aurrera.

- **Tolosa.** Etzi Usabalgo goiko kantxan eskubaloiko partidak 10:30etik aurrera; beheko kantxan areto futbola 11:00etan; futbol zelaian alebin eskolarren partidak 09:00etatik aurrera eta alebinen partidak 12:30etik aurrera; eta tatamisan judo saioa 09:00etatik aurrera.
- **Tolosa.** Tolosa Kup txapelketa bigarren jardunaldiko partidak etzi, 15:30ean Uzturpen.
- **Irura.** Etzi bailarako II. Kros Herrikoa. 10:30ean aurrebenjaminak, benjaminak, alebinak eta infantilak aterako dira, eta 11:30ean kadeteak eta helduak.

ANTZERKIA

- **Alegia.** Herriko Ttapa antzerki taldearen *Ez txuri, ez beltz* antzezlan gaur eta bihar, 22:00etan kultur etxean.
- **Tolosa.** *Xentimorik gabe...* antzezlan gaur 20:30ean kultur etxean. Euskaraenea ekimenaren azken ekitaldia izango da honakoa.
- **Tolosa.** *Aitona Matias* lana bihar, 18:00etan Topic-en.

ERAKUSKETAK

- **Tolosa.** *Boga Berria* emakume arraunlariei buruzko argazkiak Aranburu jauregian apirilaren 23a bitarte. Orduategia: 17:30etik 20:30era jaiegunak eta astelehenak ez ezik.
- **Tolosa.** Naroa Armendarizen *Perla Pinturak* Aranburu jauregian maiatzaren 7a arte. Orduategia: 17:30etik 20:30era jaiegunak eta astelehenak ez ezik.
- **Alegia.** Karnele Pellejeroren lanak Jubilatuen tabernan apirilaren bukaerara arte. Loreak eta marrazki bizidunak bildu ditu.

MUSIKA

- **Tolosa.** Bonberenean gaur Kop eta Governors taldeen kontzertuak 22:30etik aurrera.
- **Tolosa.** Bonberenean bihar Keiran eta Arramazka taldeen kontzertuak 22:30etik aurrera.

DANTZA

- **Tolosa.** Villabonako Oinkari dantza taldeak *Aridu* ikuskizun berriaren estreinaldia egingo du gaur, 22:30ean Leidor aretoan.

Farmaziak

GAUR

- **Tolosa.** Santamaria, I. Nafarroa etorbidea, 2. 943 65 46 10.
- **Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga kalea, 7. 112.

BIHAR

- **Tolosa.** Etxebeste, J. M. Gernikako Arbola, 3. 943 65 10 45.
- **Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga kalea, 7. 112.

ETZI

- **Tolosa.** Morant, R. Zabalaretta, 1. 943 67 36 49.
- **Lekunberri.** Mendia, M. I. Aralar kalea, 25. 112.

ETZIDAMU

- **Ibarra.** Iturrioz, I. Euskal Herria kalea, 3. 943 67 09 15.
- **Lekunberri.** Mendia, M. I. Aralar kalea, 25. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanenen eta iritzien erantzukizunik.

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO **hitza** info
bertako egunkaria
egin zaitez harpidedun!

902-82 02 01

(Asteegunetan 08:30-20:30 /Larunbatetan: 09:00-13:00)

www.tolosaldea.hitza.info
www.leitzaldea.hitza.info

eraman/bidali izen-emate orria:
Araba etorbidea 5 behe, atzea - 20400 Tolosa

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

■ Izen-abizenak: _____ ■ NA: _____

■ Lanbidea: _____ ■ Jaioteguna: _____

■ Helbidea: _____ ■ Herria: _____

■ P.K.: _____ ■ Tel.: _____

■ Posta elektronikoa: _____

■ Kontu zenbakia: _____